2025IKON0002. ITZIARKO ZABALSORO FRONTOIKO ALDAGELAK ETA KOMUNAK ERABERRITZEKO LANAK

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Xedea

Egin beharreko lanen helburua, Itziarko Zabalsoro frontoiko komun publiko eta aldagelak eraberritzean datza.

Itziarko zabalsoro frontoiak, sarrerako fatxadaren bi izkinetan, komun publikoak eta biltegi bat alde batetik, eta erabiltzaile puntualentzat aldagelak beste aldetik ditu. Biak ala biak oso zaharkituak daude, eta interbentzio sinple eta basiko bat aurreikusten da, obra eta aldaketa handirik egin gabe, eremuak hobeto aprobetxatu eta dagoena txukuntzeko asmoz. Komuna irisgarria izango da, eta aldagelen eremua hobeto aprobetxatuko da. Frontoia, erabilera handia duen azpiegitura bat da Itziarren, eta guztiz beharrezkoa deritzogu esku-hartze hau, zerbitzu eta erabilera hobea eskeiniko bai zaie erabiltzaile guztiei. Horretaz gain, Itziarko eskolako haurrek ere erabiltzea aurreikusten da, bide batez higienea ere ikasi dezaten.


Komunen aldeak, lau pixaleku, arraska bat, komun bat eta biltegi bat ditu. Aldagelen aldeak, berriz, bi komun, bi arraska, biltegi txiki bat koadro elektrikoarekin, aldagela eta hiru dutxa ditu.

Katastroaren arabera, frontoiak 5491105 erreferentzia du, eta eraikitako 760 m2 ditu.

Ondorengo planoetan ikus daitezke gaur egungo distribuzioak eta planteatzen direnak:


Itziarko Auzo Udala

Espte. Zbkia / Nº de Expte: 2025IKON0002
Txosten zk.: 2025/187



Itziarko
Auzo Udala

Espte. Zbkia / Nº de Expte: 2025IKON0002
Txosten zk.: 2025/187



Ondorengo argazkietan ikus daiteke esku hartzea gauzatuko den bi eremuen gaur egungo egoera:

Aldagelak eta dutxak
















MEDEX
ICP-M 20A


ARGIAK 1
MANIOBRA
SIEMENS
LOGO!
SIEMENS
PASILLKO
ARGIAK


SIEMENS
MANUAL


MANUAL

Komunak











Eraikina GFAren arabera, eraikitako ondarea bezala katalogatua dago, eta oinarrizko babes-maila du. Hori dela eta, esku hartzea burutu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol departamentuaren aurre baimena du.

Kontratua, agiri honetan eta administrazio klausulen agirian ezarritakoaren arabera garatuko da, baita aplikatu beharreko legerian ezarritakoaren arabera ere.

2. Jarduketak

Jarraian, egin beharreko lanak adierazten dira.

- Komunak: Distribuzio aldetik ez da aldaketa handirik egingo. Komun bakarra eta irisgarria jarri nahi da, gaur egun existitzen dena handiagotuz. Horretarako, arraskak okupatzen duen eremua ere hartuko du. Horretaz gain, beste arraska bat eta luzetarako pixaleku bat instalatuko dira. Leihoak eta ateak aldatu, instalazio elektrikoa eta iturgintza egokitu, akabera guztiak berritu (lurra, paretak, tetxua), eta fatxada ere margotuko da. Biltegi barruan ez da aktuaziorik aurreikusten, baina kanpotik ate berri bat ireki nahi zaio, biltegira sartzeko komunetik pasa behar ez izateko.
- Aldagelak: 3 dutxa ditu, eta gaur egun existitzen den bi komunetatik bat kenduz, leku handiagoa eman nahi zaio dutxa eremuari, laugarren dutxa bat jarriz. Fenolikozko moduluak jarriko dira, bere atearekin. Horretaz gain, koadro elektrikoa berrituko da, baita leihoak, ateak eta sanitario guztiak aldatu, instalazio elektrikoa eta iturgintza egokitu, akabera guztiak berritu (lurra, paretak, tetxua), eta fatxada ere margotuko da.

Erabiliko diren materialek ingurumenarekiko errespetua izango dute izpide, eta sortutako hondakinen kudeaketa eraginkorra eta egokia bermatuko da

Udaleko zerbitzu teknikoen oniritzirik gabe gainditzen diren neurketak edo plegu honetan aipatzen ez diren lanak kontratistaren kontura izango dira.

Obran zehar eta obra amaitzean, neurketa berriak egingo dira benetako neurketak ziurtatzeko. Erabilitako materialen albaranak ere aurkeztu beharko dira, hala badagokio, erabilitako guztizko kopuruak ziurtatzeko.

3. Baldintza teknikoak

Ondorengo araudia beteko da:

- 68/2000 Dekretua:

Komunak komun publikoen baldintzak beteko ditu.

Ateek eta igarotze tarteek gutxieneko zabalerak beteko dituzte.

- EKT DB-SUA:

Irristakortasuna: lurrek 1.2 taulako sailkapena beteko dute.

Desnibelak babestuko dira eta eskudelek araudia beteko dute.

Gutxieneko altuera librea beteko da.

Beirek inpaktu arriskuko baldintzak beteko dituzte.

Harrapatzeko arriskua ekiditeko neurriak beteko dira.

Argiztapenak gutxieneko iluminantzia bete eta larrialdi argiztapenak araudia beteko du.

Irisgarritasun baldintzak beteko dira: ateak eta komuna.

- EKT DB-SI:

Akaberek suarekiko erreakzioa beteko dute.

Ebakuazio ibilbidea solairu berean egingo da eta 25m baino gutxiagokoa izango da.

Ebakuazio elementuen dimentsionatua gutxieneko zabalera beteko du.

Su-itzalgailuak gutxienez 15 m-ro egongo dira.

- Debako Arau Subsidiarioak:

Aireztapen eta argiztapen naturala bermatuko da.

Gutxieneko altuerak eta azalerak beteko dira.

4. Kalitate kontrol plana

Lanekin aurretik, kontratistak Kalitate Planaren proposamena aurkeztu beharko du, eta Hirigintza Sailak onartu beharko du.

Proba eta entsegu gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta obra unitateen prezioetan sartuta daudela ulertuko da, Egikaritze Materialaren Aurrekontuaren EHUNEKO BIRA arte (% 2), gastuen zenbaketa horretan honako hauei dagozkienak sartu gabe:

- Edozein material mota onartzeko aurretiazko saiakuntza guztiak.
- Harrobiak eta maileguak finkatzeko saiakuntza guztiak.
- Plegu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten entseguak.

Hirigintza Sailak ezarri ahal izango du kontratistak obren kalitatea ziurtatzeko aldez aurretik egindakoak egiaztatzeko eta kontrastatzeko saiakuntza gehigarriak egitea. Horrela, Hirigintzak agindu dezake kasu bakoitzean egokiak diren materialen eta obra unitateen entseguak eta analisiak egiaztatzeko, eta sortzen diren gastuak kontratistaren kontura izango dira, obraren aurrekontuaren % 1 gehienez ere.

5. Segurtasuna eta osasuna

Kontratistak eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 ERREGE DEKRETUA bete beharko du.

Horretarako, eta segurtasun eta osasun azterketarik ez duenez, obraren berariazko arriskuen ebaluazioa aurkeztuko da, edo, bestela, segurtasun eta osasun plana, hala behar badu.

Sustatzaileak izendatutako segurtasun koordinatzaileak obrak hasi aurretik onartu beharko du agiri hori.

Puntu hau aplikatzearen kostua obraren gastu orokorren barruan egongo da, eta aurrekontuan ez dago horretarako partida espezifikorik. Kostu horren barruan sartzen da ordezko zirkulazioa mantentzeko edo desbideratzeko lanetan egin beharreko behin-behineko seinaleztapen guztia.

6. Hondakinen kudeaketa

Kontratistak eraikuntzako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 DEKRETUA bete beharko du.

7. Lanak burutzeko epeak

Obra kontratua proiektuaren zuinketa aktarekin hasiko da gauzatzen. Lanak egiteko epea ondorengoa kontenplatzen da:

- BERROGEI (40) EGUN NATURAL

Hirigintza Sailarekin adostuko da egin beharreko lanen ordena.

8. Obren exekuzioa

8.1 Zuinketa akta

Kontratua sinatu eta gehienez ere 10 eguneko epean, zuinketa akta sinatuko da.

Esleipendunak obra adierazteko bi kartel normalizatu instalatuko ditu gutxienez, eta hori, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera eremuan hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 23. artikuluaren 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera, eta, zehazki, hizkuntza araubidearen arloan, seinaleak, adierazleak eta ohar publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dira, hurrenkera horretan.

8.2. Obrak hastea eta gauzatzea

Obrak hamar eguneko epean hasi beharko dira, zuinketa akta sinatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Esleipendunak bere gain hartuko du obren amaiera onaren erantzukizun osoa, eta bere ardurapeko obrak gauzatzean sortutako kalteen eta kalteen erantzule bakarra izango da Udalaren zein hirugarrenen aurrean.

Aurreikusi ezin diren inguruabarren ondorioz, ezinbestekora mugatuko den edozein aldaketa egiteko, udalaren onespena beharko da.

Obra zibilak eta instalazioak indarrean dauden erregelamendu ofizialen arabera egingo dira.

Esleipendunak ezarritako epeak betetzen ez baditu, soberakina obra egiteko emandakotik deskontatuko da, dagozkion zehapenei kalterik egin gabe.

9. Aurrekontua

Dokumentu honetako partidetan deskribatutako aurrekontua:

- **58.982,72€ (71.369,09€ BEZ barne)**

Hurrengo orrialdean, unitateko prezioen araberako banakapena egiten da:

	KOPURUA	PREZIOA	GUZTIRA
01 KAPITULUA: ERAISPENAK			
01.01 M2 AZULEJOAREN ERAISPENA			
M2 Alikatatzeak eraistea, zarpiatze-masa barne. **Hormak**	**106**	18,9	2003,4
Komunak	30		
Aldagelak	76		
02.02 M2 BALDOSAK ERAISTEA			
M2 Lurretik zeramika xehatu eta jasotzea, morteroa barne. **Lurzoruak**	**26**	18,9	491,4
Komunak	8		
Aldagelak	18		
01.03 UD ATEAK ERRETIRATZEA			
UD Zurezko ateak, ate-zangoak eta aurremarkoak desmuntatzea eta erretiratzea	**7**	47,25	330,75
Komunak	3		
Aldagelak	4		
01.04 M2 TABIKEAK ERAISTEA			
M2 Zeramikaz estalitako adreiluzko tabikeak eraistea	**19,5**	29,4	573,3
Komunak			
Biltegiko kanpoko aterako hutsune berria (kanpokoa)	2,5		
Ate lerragarri berrirako sarrera	4		
Barruko tabikea	5		
Aldagelak			
Barruko tabikeak	8		
01.05 M2 SABAI FALTSUA ERAISTEA			
M2 Dagoen sabai faltsua eraistea	**26**	18,9	491,4
Komunak	8		
Aldagelak	18		
01.06 UD ELEMENTU SANITARIOAK KENTZEA			
UD Bainugeletako eta aldageletako elementuak kentzea.	**10**	21	210
Komunak (4 pixatoki, komun 1, konketa 1)	6		
Aldagelak (2 komun, 2 konketa)	4		

02 KAPITULUA: IGELTSERITZA			
02.01 M2 ZARPIATZEA			
M2 Hormen zarpiatzea, morteroz egina, aldez aurretik maestreatua, ondoren materiala jartzeko	**114**	34,65	3950,1
Komunak	38		
Aldagelak	76		
02.02 M2 RECRECIDO			
M2 Morteroz egina, nahi den kotara iritsi arte.	**26**	39,9	1037,4
Komunak	8		
Aldagelak	18		
02.03 M2 ALIKATATUA			
M2 **paretetan** zeramikazko materiala eskuratu eta jartzea, eta, ondoren, junturak egitea eta garbitzea, materiala barne, baita heltzeko materiala eta bitarteko osagarriak ere.	**114**	66,15	7541,1
Komunak	38		
Aldagelak	76		
02.04 M2 BALDOSAK			
M2 **zoruetan** zeramikazko materiala hornitzea eta jartzea, eta, ondoren, junturak egitea eta garbitzea, materiala barne, baita heltzeko materiala eta bitarteko osagarriak ere.	**26**	66,15	1719,9
Komunak	8		
Aldagelak	18		
02.05 M2 TABIKERIA BERRIA AHB			
M2 Trenkada berri bat egitea hutsune bikoitzeko adreiluz, zementuzko morteroz jasoa.	**2,5**	50,4	126
Komunak			
Bainugela eta biltegiaren arteko tartea hormatu	2,5		
02.06 M2 TABIKERIA BERRIA PLADUR			
M2 de pladur hidrofugoko plakak hornitzea eta jartzea, profileria galbanizatuaren gainean finkatuta eta torlojututa; ondoren, junturak hiru eskutara errepasatzea, margotzeko prest utzita.	**8**	77,28	618,24
Komunak			
Komun irisgarriko tabikea	4		
Ate lerragarrirako sarrera	4		
02.07 M2 TETXU FALTSUAK			

M2 pladur hidrofugoko plakak hornitzea eta jartzea, profileria galbanizatuaren gainean finkatuta eta torlojututa; ondoren, junturak hiru eskutara errepasatzea, margotzeko prest utzita.	**26**	46,368	1205,568
Komunak	8		
Aldagelak	18		
03 KAPITULUA: BARNE AROTZERIA			
03.01 UD PASOKO ATEA, 82,5			
UD 82,5 cm-ko orriko marroi koloreko zurezko ate lakatuak hornitu eta jartzea, bainugelan ixtea eta kondenatzea. Sarrailarekin. Hutsunea handitzea, aurremarkoa, markoa eta ate-zangoak handitzea barne.	**2**	810,075	1620,15
Aldagelak	2		
03.02 UD PASOKO ATEA, 62,5			
UD Egur lakatuzko ateak, marroi kolorekoak eta 62,5 cm-ko orridunak, sarrailaz hornitu eta jartzea. Aurremarkoa, markoa eta ate-zangoak barne.	**1**	712,425	712,425
Koadro elektrikoaren gela	1		
03.03 UD ATE LERRAGARRIAREN KASONETOA JARTZEA, 90			
UD 90 cm-ko paseko ate lerragarrirako kasonetoa hornitu eta jartzea, marroi kolorekoa, behar bezala galgatuta eta bi aldeetatik hartuta, kokapena prestatu eta trenkada pladur bidez itxi ondoren. Kondena komuneko atean eta sarraila sarrerako atean. Orria eta erremateak barne.	**2**	883,2705	1766,541
Komunak	2		
04 KAPITULUA: KANPO AROTZERIA			
04.01 UD BILTEGIRA DOAN ZUREZKO KANPOKO ATEA			
UD Kanpoalderako zurezko atea, 90 cm-ko pasabideko orria, ate-zangoak eta itxitura hornitu eta jartzea. Erremateak barne.	**1**	1176,2415	1176,242
04.02 UD ZUREZKO LEIHO OSZILAKORRA 2 ORRI. 1,40x0,70			
UD 2 orriko zurezko leiho oszilakorra hornitu eta jartzea. Aurremarkoa eta ate-zangoak barne. Kolore marroia. Zuloaren neurriak: 1,40x0,70. Daudenak kentzea barne.	**4**	798	3192
04.03 UD ZUREZKO LEIHO IRABIAKARIA ORRI 1. 1,00X0,75			
UD Orri bateko zurezko leihoa hornitu eta jartzea, irabiakaria. Kolore marroia. Aurremarkoa eta ate-zangoak barne. Zuloaren neurriak: 1,00x0,75. Daudenak kentzea barne.	**4**	703,5	2814

05 KAPITULUA: ELEKTRIZITATEA			
05.01 UD PRESENTZIA DETEKTAGAILUAK			
UD Presentzia-detektagailuak hornitzea eta jartzea	**4**	157,5	630
Komunak	2		
Aldagelak	2		
05.02 UD ENTXUFEAK			
UD Entxufe puntuak	**4**	68,25	273
Komunak	2		
Aldagelak	2		
05.03 UD AIRE ERAUZGAILUAK			
UD Aure erauzgailuak hornitzea eta jartzea	**2**	68,25	136,5
Komunak	1		
Aldagelak	1		
05.04 UD MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT ALARMA			
UD Mugikortasun urriko pertsonentzat alarma hornitzea eta jartzea	**1**	435,75	435,75
Komunak	1		
05.05 UD FOKU ENPOTRAGARRI BIRIBILAK			
UD foku enpotragarri biribilak eskuratu eta instalatzea	**11**	60,375	664,125
Komunak	4		
Aldagelak	7		
05.06 UD LARRIALDIETARAKO LUMINARIA			
UD 60LM-eko larrialdietarako luminariak nhornitzea eta instalatzea	**2**	86,1	172,2
Komunak	1		
Aldagelak	1		
05.07 UD KOADRO ELEKTRIKOA			
UD Koadro elektriko berria birjartzea (elementu guztiak birjartzea eta konektatzea)	1	1850,1	1850,1
05.08 UD INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOA			
UD Argiztapenerako eta bainugeletako eta aldageletako hartuneetarako instalazio berria	1	790,65	790,65
06 KAPITULUA: PINTURA			
06.01 M2 BARNEKO PINTURA			

M2 Sabaiak eta hormak saneatu eta pintatzea barrualdean, pintura plastiko matearekin eta zuriarekin, bi esku barne. **Barrualdea**	**61,2**	14,364	879,0768
Komunak	25,6		
Aldagelak	35,6		
06.02 M2 KANPOKO HORMEN PINTURA			
M2 Fatxadako hormak saneatu eta pintatzea, pintura plastiko matearekin eta zuriarekin, bi esku barne. **Kanpoaldea**	**58,2**	20,3175	1182,479
Komunak	27		
Aldagelak	31,2		
06.03 ML KANPOKO ZUREZKO ELEMENTUEN PINTURA			
ML Fatxadan zurezko elementu linealak saneatu eta pintatzea, marroi koloreko pinturarekin, bi esku barne. **Kanpoaldea**	**30**	20,3175	609,525
Komunak	15		
Aldagelak	15		
CAPÍTULO 07 ITURGINTZA			
07.01 UD UR HOTZ ETA BEROAREN INSTALAKUNTZA			
UD Diametro desberdinetako hodia duen ur hotza eta beroaren instalazioa egitea, 4 dutxari, 3 konketari, 2 komunontziri eta garbiketa-txorrota, guztiz instalatuta eta funtzionatzen. Baita lehendik dagoen instalazioa kentzea ere, hala badagokio.	**1**	1992,375	1992,375
07.02 UD ELBARRITUENDAKO KOMUNONTZIA			
UD Elbarrituentzako komunontzia hornitzea eta instalatzea. Ebaketa-giltza eta tenkagailua barne	**1**	519,225	519,225
Komunak	1		
07.03 UD KOMUNONTZIAK			
UD Komunontzia hornitzea eta instalatzea. Ebaketa-giltza eta tenkagailua barne	**1**	368,2875	368,2875
Aldagelak	1		
07.04 UD LUZETARAKO INOX PIXALEKUA			
UD Altzairu herdoilgaitzezko luzetarako pixalekuaren hornidura eta instalazioa, 1.00m-ko luzera, gutxi gorabehera. Ebaketa-giltza eta tenkagailua barne	**1**	1704,15	1704,15
Komunak	1		
07.05 UD OINARRIRIK GABEKO KONKETA			

UD Oinarririk gabeko konketa, tenporizatutako txorrot hotz eta beroa barne, ixteko giltzak eskuratu eta instalatzea.	**3**	525,2625	1575,788
Komunak (2 unitate, 1 elbarrientzako palankarekin)	2		
Aldagelak (unitate 1)	1		
07.06 UDHUSTUBIDEAK INSTALATZEA			
UD Diametro desberdineko duten PVCzko hodia, urak husteko instalazioa, behean aipatutako aparatuetarako, bainuen kutxeta orokorreraino.	**1**	941,85	941,85
Komunak (2 konketa, komunontzi 1, pixatoki 1)			
Aldagelak (4 dutxa, konketa 1, komunontzi 1)			
07.07 UD GARBIKETA ITURRIA			
UD Garbiketarako ur-punturako txorrotaren hornidura eta instalazioa	**1**	72,45	72,45
Komunak	1		
07.08 UD DUTXA TXORROTA			
UD Enpotratutako dutxako txorrota hornitu eta instalatzea	**4**	597,7125	2390,85
07.09 UD LEHENDIK DAGOEN TERMO ELEKTRIKOAREN ORDEZ BERRIA JARTZEA (200 LITROKOA), ALDAGELEN SABAIAN DAGOENA KENTZEA BARNE			
Aldagelak	**1**	1314,6	1314,6
08 KAPITULUA: BESTE BATZUK			
08.01 UD INOX BERME-BARRA TOLESGARRIAK			
UD Hrnidura eta instalazioa	**2**	235,4625	470,925
08.02 UD AIRE BEROKO LEHORGAILUA			
UD Altzairu herdoilgaitzezko aire beroko lehorgailuaren hornidura eta instalazioa	**2**	237,636	475,272
08.03 UDXABOI DOSIFIKATZAILEA			
UD Xaboi dosifikatzailearen hornidura eta instalazioa	**2**	66,4125	132,825
08.04 UD KOMUNEKO PAPER BANAGAILUA			
UD Komuneko paper-banagailuaren hornidura eta instalazioa	**2**	78,4875	156,975
08.05 UD ISPILUAK			
UD Ispilu angeluzuzena, 80x80 neurrikoa	**2**	156,975	313,95

08.06 UD ENZIMERA			
UD 1,20 luze eta 0,60 m-ko hondoko granitozko gainaldea hornitu eta muntatzea. Euskarriak barne	**2**	569,1	1138,2
08.07 UD PIXOIHALAK ALDATZEKO MAHAI ETZANGARRIA			
UD Komun irisgarrian pixoihalak aldatzeko egurrezko mahai etzangarria hornitu eta muntatzea	**1**	414,75	414,75
08.08 UD ALDAGELETARKO BANKUA			
UD L formako bankuaren hornidura: 2,30x1,00m	**1**	467,3025	467,3025
08.09 UD ALDAGELETARAKO ESEKITOKIA			
UD 2,30M-ko estekitokiaren hornidura eta instalazioa	**1**	219,765	219,765
08.10 UD DUTXETARAKO FENOLIKOZKO MODULUAK			
UD Material fenolikodun atedun dutxa-moduluak hornitu eta muntatzea. Moduluaren barruko neurriak: 1,65x0,90	**4**	835,59	3342,36
09 KAPITULUA: HONDAKINEN KUDEAKETA			
UD Sortutako hondakina kudeatzaile baimenduari eramatea, materialak bereizi ondoren	**1**	367,5	367,5
10 KAPITULUA: USTEKABEAK	**1**	1400	1400
SUBTOTAL			58982,72
BEZ			12386,37
GUZTIRA			**71369,09**

10. Obraren baldintza bereziak

1. Esleipendunaren kontura izango dira aurrekontuan jasota ez dauden konponketa eta/edo birjartze guztiak, obrak gaizki egin direlako edo koordinaziorik planifikatu ez bada.

2. Enpresek neurketak, partidak eta zehaztapenak egiaztatuko dituzte, eskaintzan enkargatutako lanak behar bezala gauzatzeko behar den guztia kontuan hartuta. Beraz, gauzatze materialaren konplexutasuna ezagutu beharko dute, eta konplexutasun hori ez da inoiz prezioa eta epea aldatzeko kausa izango, baldin eta hasiera batean aurreikusitakoa baino handiagoa ez bada. Esleipendunaren erantzukizuna izango da soluzio funtzional, zuzenak eta iraunkorrak ematea.

3. Obrak egin bitartean erabiltzen diren bitarteko lagungarriek bide publikoari edota argiteriari eragiten badiote, behar bezala seinaleztatuta geratu beharko dira.

4. Prezioaren barruan, obra osoa dagoela ulertuko da, eta honako garraioen zenbatekoa inplizitua izango du: materialak, aseguruak, hondakinak kentzea, obraren aldizkako garbiketa, segurtasuna, erregaia, ura, elektrizitatea, obrarako sarbideak, obra-kartelak, mugakideei egindako kalteak konpontzea, (berme-aldi osoan mantentzeaz gain) eta lanen zuzendaritza praktikoa, bai eta exekuzio epea ez betetzeak eragin ditzakeen edozein motatako gastuak ere.

5. Aurrekontuko partiden prezioetan, eraikuntza-xehetasunen baten deskribapena falta bada ere, era guztietako xehetasunak eta praktikak sartzen dira, eraikuntza araudiaren arabera, EKT, NTE, etab.

6. Ez dira aldaketatzat hartuko berariaz aurreikusita ez dauden lanak. proiektuaren eskaintzan edo dokumentazio teknikoan beharrezkoak badira eta obra behar bezala gauzatzeko zati bat bada.

7. Esleipendunak formalki jakinaraziko du obrak noiz amaituko diren, gutxienez, obrak bukatu baino 5 egun lehenago. Kontratuaren xedea gauzatu eta hurrengo hilabetean, obraren harrera egingo da, eta akta batean jasoko da, bi aletan, kontratistak eta sustatzaileak sinatua.

Aktan honako hauek jasoko dira:

a) Parte hartzen duten alderdiak
b) Data
c) Obra hartu izanaren adierazpena

d) Kontratistari erantzukizunak ziurtatzeko eskatzen zaizkion bermeak, hala badagokio.

Harrera aktarekin batera, antzemandako akatsen zerrenda aurkeztuko da, akatsik egonez gero, eta beharrezko jarraibideak eta horiek zuzentzeko epea ezarriko dira.

Epea igaro eta kontratistak akatsak zuzendu ez baditu, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua hautsi.

Obrak jasotzen direnetik hiru hilabeteko epean, obren azken ziurtagiria onartuko da, eta kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari.

8. Obrak jaso ondoren, Itziarko Auzo Udaleko zerbitzu teknikoek antzemandako akatsak konpontzeko behar diren konponketak egin beharko ditu kontratistak.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatzen dut.

Itziarren, 2025eko maiatzaren 29an
Udal Arkitekto Teknikoa

Itziarko
Auzo Udala

2025.05.29
11:08:59
+02'00'